NS/D1

Ezintasuna edo buru-nahasmendu larriak dituen 60 urtetik beherako biztanleria ez-instituzionalizatua (Tasa 1.000 pertsonako)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Honako urritasun hauetakoren bat duen 60 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa biltzen du: itsutasuna edo ikusmen urritasun larria; gormututasuna; elbarritasuna, mutilazioa, deformazioa edo baliaezintasuna; adimen-urritasuna, buru-nahasmendu larria.

Zenbakitzailea: Aipaturiko urritasun horietakoren bat duten 60 urtetik beherako pertsonen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 60 urtetik beherako biztanleria.

NS/D2

Zentzumen-urritasunaren bat duen 60 urtetik beherako biztanleria ez-instituzionalizatua (Tasa 1.000 pertsonako).

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Zentzumen-urritasunen bat duen 60 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa biltzen du (itsutasuna, ikusmen-urritasun larria, edo gormututasuna).

Zenbakitzailea: Aipaturiko urritasun horietakoren bat duten 60 urtetik beherako pertsonen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 60 urtetik beherako biztanleria.

NS/D3

Adimen-urritasuna edo buru-nahasmendu larriak dituen 60 urtetik beherako biztanleria (Tasa 10.000 pertsonako)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Zentzumen-urritasunen bat edo buru-nahasmendu larriak dituen 60 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa biltzen du.

Zenbakitzailea: Adimen-urritasuna edo buru-nahasmendu larriak dituzten 60 urtetik beherako pertsonen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 60 urtetik beherako biztanleria.

NS/D4

Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko zailtasunak dituen 6tik 64 urtera bitarteko biztanleria ez-instituzionalizatua (Tasa 10.000 pertsonako)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera hauek egiteko ezintasuna edo zailtasuna duen 6tik 64 urtera bitarteko biztanleriaren proportzioa biltzen du: elkarrizketa bat izan; 400 metro ibili nekatu gabe; eskailerak igo edo jaitsi; etxe barruan batetik bestera joan; bakarrik jantzi, erantzi, garbitu edo jan.

Zenbakitzailea: Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko ezintasuna edo zailtasuna duten 6tik 64 urtera bitarteko pertsonen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 6tik 64 urtera bitarteko biztanleria.

NS/D5

Bere jarduera nagusian aritzeko erabateko ezin-tasuna duen 65 urtetik beherako biztanleria (Tasa 1.000 pertsonako)

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Osasunari buruzko Inkesta.

Definizioa: Bere adin eta sexu bereko pertsonen ohiko jarduerak egiteko erabat mugatuta dagoen 65 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa biltzen du.

Zenbakitzailea: Adin eta sexu bereko pertsonen ohiko jarduerak egiteko erabateko ezintasuna duten 65 urtetik beherako biztanleen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 65 urtetik beherako biztanleria.

Oharrak: Honako pertsona hauek barne: beste haurren ohiko jokoetan parte hartzeko ezintasuna duten 4 urtetik beherako haurrak; osasun-arazoak direla eta, hezkuntza-zentro berezi batera joan behar duten edo eskola pribatuak hartu behar dituzten 5etik 17 urtera bitarteko pertsonak; osasunak lan-mota edo lanean eman dezaketen denbora mugatzen dieten 18tik 69 urtera bitarteko pertsonak; eta, azkenik, modu independentean bizitzeko laguntzaren beharra duten 70 urtetik gorako pertsonak.

NS/D6

Bere jarduera nagusian aritzeko ezintasun partziala duen 65 urtetik beherako biztanleria (Tasa 10.000 pertsonako)

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Osasunari buruzko Inkesta.

Definizioa: Beren adin eta sexu bereko pertsonek egin ohi dituzten jarduera-kopuru eta jarduera-mota berak egiteko zailtasunak dituen 65 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa biltzen du.

Zenbakitzailea: Adin eta sexu bereko pertsonek egin ohi dituzten jarduera-kopuru eta jarduera-mota berak egiteko zailtasunak dituzten 65 urtetik beherako biztanleen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 65 urtetik beherako biztanleria.

Oharrak: Honako pertsona hauek barne: joko-kopuru batetik gora eta joko-mota batzuetan parte hartzeko zailtasunak dituzten 4 urtetik beherako haurrak; osasun-arazoak direla eta, hezkuntza-zentro berezi batera joan behar duten edo eskola pribatuak hartu behar dituzten 5etik 17 urtera bitarteko pertsonak; osasunak lan-mota edo lanean eman dezaketen denbora mugatzen dieten 18tik 69 urtera bitarteko pertsonak; eta, azkenik, modu independentean bizitzeko laguntzaren beharra duten 70 urtetik gorako pertsonak.

NS/D7

Beste jarduera batzuk egiteko mugak dituen 65 urtetik beherako biztanleria (Tasa 10.000 pertsonako)

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Osasunari buruzko Inkesta.

Definizioa: Gizarte-jarduerak, kirol-jarduerak eta abar egiteko mugak dituen 65 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa biltzen du.

Zenbakitzailea: Gizarte-jarduerak, kirol-jarduerak eta abar egiteko mugak dituen 65 urtetik beherako pertsonen kopurua (1.000 pertsonako).

Izendatzailea: 65 urtetik beherako biztanleria.

NS/D8

Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 16tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren inaktibitate-tasa (%)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 16tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren inaktibitate-tasa biltzen du.

Zenbakitzailea: Ezintasuna edo eritasun kronikoa duten eta inaktibitate-egoeran dauden 65 urtetik beherako pertsonen kopurua (100 pertsonako).

Izendatzailea: Urritasun edo eritasun kronikoak dituen 65 urtetik beherako biztanleria.

NS/D9

Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 16tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren okupazio-tasa (%)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 16tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren okupazio-tasa biltzen du.

Zenbakitzailea: Ezintasuna edo eritasun kronikoa izanik, lanean ari diren 65 urtetik beherako pertsonen kopurua (100 pertsonako).

Izendatzailea: Urritasun edo eritasun kronikoak dituen 65 urtetik beherako biztanleria.

NS/D10

Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 16tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren langabezia-tasa (%)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 16tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren langabezia-tasa biltzen du.

Zenbakitzailea: Ezintasuna edo eritasun kronikoa izanik, langabezian dauden 65 urtetik beherako pertsonen kopurua (100 pertsonako).

Izendatzailea: Ezintasuna edo eritasun kronikoa duen 65 urtetik beherako biztanleria aktiboa (landuna edo langabea).

NS/D11

Ezintasuna edo eritasun kronikoa izanik ez lagunekin ez auzoekin harremanik ez duen 6tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren proportzioa (%)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Ezintasuna edo eritasun kronikoa izanik, ez lagunekin ez auzoekin harremanik ez duen 6tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren ehunekoa (familia-harremanak alde batera utzita).

Zenbakitzailea: Ezintasuna edo eritasun kronikoa izanik ez lagunekin ez auzoekin harremanik ez duten 6tik 65 urtera bitarteko pertsonen kopurua (100 pertsonako).

Izendatzailea: Urritasun edo eritasun kronikoak dituen 65 urtetik beherako biztanleria.

NS/D12

Urritasun edo eritasun kronikoak izanik oso gizarte-harreman mugatuak dituzten 6tik 65 urtera bitarteko pertsonen proportzioa (%)

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Definizioa: Urritasun edo eritasun kronikoak dituen eta honako jarduera hauek lagun edo auzoekin batera egin bai, baina hilean behin baino gutxiagotan egiten dituen 6tik 65 urtera bitarteko biztanleriaren proportzioa biltzen du: paseatzera irten, baxoerdiak hartzera joan, bilerak egin norberaren edo inoren etxean, kirola egin, kirol ikuskizunak ikustera joan, kultur ikuskizunak ikustera joan, elizkizunetara joan.

Zenbakitzailea: Urritasun edo eritasun kronikoak izanik, aipaturiko jarduera horiek hilean behin baino gutxiagotan egiten dituzten 6tik 65 urtera bitarteko pertsonen kopurua (100 pertsonako).

Izendatzailea: Urritasun edo eritasun kronikoak dituen 65 urtetik beherako biztanleria.